

Zer gertatzen da herri euskaldunean mila etxe eraikiz gero?

Herri euskaldun batean biztanle berriak zein izango diren jakin gabe etxe multzoa eraikitzeak edo hipermerkatu handi bat irekitzeak zein eragin linguistiko izan dezake? Prebenitzea sendatzea baino hobe dela esaten da. Gipuzkoako Foru Aldundiak tinko heldu dio gaiari, eta ingurumen inpaktua ebaluatzeko bitartekoak nola, hizkuntza eragina aztertzeko tresna sortze bidean da.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

Argazkiak: Dani Blanco

USURBIL ETA DONOSTIA udalerriek partekatzen duten herri izaerako auzoa da Zubietakoa. 2011ko datuen arabera, astean zehar auzotarren %80k euskaraz egiten dute, asteburuetan %61,5ek. Auzo euskalduna eta nekazaritza girokoa da. Duela urte batzuetako planaren arabera, 3.000 etxebizitza, espetxea, errauskailua eta kamioientzako gune handi bat egin nahi zituzten. Azkenean, etxebizitza batzuk baino ez zituzten egin. Aurreikusita-koak bete balira aldaketa itzela zitekeen. Zein motatako biztanleak erakarriko zituen egitasmoak? Hizkuntza ohituretan nolako eragina izango zuen? Donostiako Udalean kezka horiek izan zituzten mahai gainean. Zubietakoa agian, hirigintza plan ikaragarri baten adibidea da, baina maila txikiagoko kasuak asko dira. Usurbilen Urbil saltoki handia ireki zenean kezka bera sortu zen Udalean: Biztanle berriak ekarriko al ditu Urbilek Usurbilera, eta horiek euskal hiztunak izango al dira? Merkataritza gunean euskarazko arreta bermatuko ote da?

Bizkaiko Gatika herriak 1981ean 888 biztanle zituen, gaur egun 1.623. Euskararen ezagutza %90ekoa zen 1981ean, 2011n %71koa. Ezagutzak eta erabilerak, biek egin dute behera, eta Miren Segurola UEMAko kidearen ustez kezkatzekoa da. Zer gertatu da? Bada, Bilbo arintzeko erabakiaren ondorioz, inguruko herri txikietan etxe piloa egin

dute. Herri txiki euskaldunak erdalduntzen ari dira, hara bizitzera joan direnak gaztelania hiztunak izaki.

Kalteak konpontzetik neurriak hartzera

Ezin da esan hizkuntza eta lurralde antolaketan inoiz lotu ez direnik, eta historikoki aipamenik egin ez denik, baina ez da ohikoa lurralde antolaketa eta euskal komunitatea lotzea. Urtarrilean, Gipuzkoako Foru Aldundiak, UEMAk eta Kontseiluak UEUren lankidetzarekin antolatutako *Lurraldea eta Hizkuntza I. jardunaldiek* ikusmin handia sortu

zuten. Jende asko bildu zen, euskalgintzakoa eta bestelako eremuetakoa, hala nola, arkitektoak, legelariak eta abar. Gaiari serio heltzeko garaia iritsi dela dirudi, eta jardunaldiak abiapuntua baino ez ziren izan.

Aipatu berri ditugun hiru erakundeek lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten 2012ko maiatzean gai honi buru-bela-

rri heltzeko konpromisoarekin. Bi helburu dituzte: bata, lurralde antolaketaren ondorioz gerta daitezkeen eragin linguistikoak aztertuko dituen neurgailua edo tresna prestatzea, eta bestea, lanketa soziala. Lehenengoari helduko diogu. Zer esan nahi du tresna bat garatzek? Ingurumenarekin lotutako adibide bat jarriko dugu. Eman dezagun udal batek naturgune garrantzitsu bat urbanizatu nahi duela. Protokoloari segiz inguru-

Gatikan euskararen ezagutzak eta erabilerak behera egin dute. Zer gertatu da? Bada, Bilbo arintzeko erabakiaren ondorioz, inguruko herri txikietan etxe piloa egin dute



Asteasun (Gipuzkoa) azken urteotan eraikitako etxe saila. Euskal hiztun kopuruak eta etxean euskaraz baino egiten ez duten kopuruak behera egin dute. Biztanle berriak ez dira hizkuntza ohituren aldaketan kontuan hartu beharreko aldagai bakarra, baina eragiletako bat bai.

Aldaketa txikiak eragin handia dute arnasguneetan

XABIER BENGOTXEAk Gipuzkoako Tolosaldea eskualdeko lau herri-arnasgune aztertu ditu. *Arnasguneak. Ezaguarriak. Zenbait arnasguneen egoeraren behaketa* Hizneteko sakontze egitasmoan Asteasu, Alegia, Amezketeta eta Berastegi herriak ikertu ditu. Datu demografikoak, soziolinguistikoak eta bestelakoak ikertuta ondorioztatu du lau herriak –gainerako arnasguneetan ere beste hainbeste ari da gertatzen– arnasgune gisa indartsu daudela, ez dagoela alarma sortzeko arrazoirik. Alabaina, arnasguneetan errepikatutako ohi diren joerak ageri dira lau herriotan ere: euskaldun kopuruak, gutxi bada ere, behera egin du; jatorrizko hizkuntza euskara dutenen kopuruak behera egin du; eta etxean euskara hutsez aritzen direnen kopuruak behera egin du. Asteasu, Amezketeta, Alegia eta Berastegiko herritarrak, etxean euskarari eutsi beharrean, sukaldean euskara eta gaztelania erabiltzen ari dira, nahiz eta euskaldunak izan. Herriotako kale giroan etxean baino indartsuago dago euskara, etxeak euskaldun hutsak izanda ere.

Lurralde antolamenduak herri txikiotan izan dezakeen eraginaz aritu da ikerketan Bengoetxea, baina argi utzi du ez dela eragile bakarra: “Urbanizazioaz gain badira aldagai gehiago. Hala ere, urbanizazioak

eragina du, begi bistakoa da, eta badago paralelismoa egin diren etxe berrien eta aipatu ditugun aldagaien artean, hau da, euskaldun kopuruak behera egin duela eta abar”.

Etxebizitza berriak egin eta gaztelania hiztunak jasotzeak inpaktua du, inpaktu handiagoa biztanle gutxiko arnasguneetan; “nahikoa da bi edo hiru izaitea patioko edo parkeko hizkuntza joerak iraultzeko”. Urbanizazio motak ere badu eragina, etxe multzo bakartuek bilakaera sozial, kultural eta linguistikoan eragiten dute. Herri txiki bateko zinegotziak Bengoetxeari kontatu zion etxe berrietako biztanleak ez zituztela ezagutzen. Batzuetan kontua ez da euskara ala gaztelania, hitzik ez baita biztanleen artean.

Zergatik pentsatu behar dugu ordea, etxebizitza berriak egiteak euskal komunitatea ahulduko duela halabeharrez? Herriren batean gertatu da etxe sail berria egin eta erosleak kanpotarrak beharrean herriko baserritarrak izatea. Bengoetxeak daturik ez du baina Larraulekin akordatu da: “Biztanleria ia bikoiztu egin da, baina ez dirudi inpaktua hainbestearinokoa izan denik. Baliteke joan berriak euskaldunak izatea”.

men inpaktua neurtzeko tresna martxan jarri du. Ebaluazioa egin eta konturatu dira naturgune horretan dagoen basoa altxorraldea, zaindu beharrekoa, eta egitasmo urbanistikoak kalte egingo liokeela. Ez urbanizatzea erabaki dute. Beste hau ere erabaki zezaketen: azterketak adierazi du babestu beharreko gunea dela, baina altxorrak altxor urbanizatzea erabaki dute. Alabaina, ahalik eta kalte gutxien eragiteko neurri zuzentzaileak hartuko dituzte. Ingurumenean lehena gotik, eta generoan berrikiago, inpaktuak neurtzeko tresnak garatuta daude, nolabait esatearren prebentzio moldeak aplikatzen dira. Bi alor horietako tresnek nola funtzionatzen duten aztertu dute eta atzerrian eragin linguistikoa ebaluatzeko dituzten neurgailuak ere begiratu dituzte. Batez ere Flandriako eta Galeseko ereduak landu dituzte.

Zigor Etxeburua Foru Aldundiko Euskara zuzendariak prebenitzearen eta konpontzearen arteko desberdintasuna kontatu digu: “Euskararen normalizazioan adituak gara kalteak zuzentzen, 30 urte daramatzagu direnak eta ez direnak asmatzen kalteak zuzentzeko. Oraindik ez dugu sistema bat pentsatuko ezer egin aurretik aplikatzekoa, alegia, urratsa eman aurretik pentsatzea. Aplikatu egiten dugu eta gero konpondu”.

Eragin linguistikoa neurtzeko tresnaren beta bertsioa prestatu du Aldundiak eta hurrengo jardunaldietan aurkeztuko du. Bitartean, Tolosaldeko zatikako lurralde planean testatuko dute tresna. Horrek esan nahi du lurralde planean txosten gisa gehituko zaiola eta eragin linguistikoaren ebaluazioa egin ahal izango dutela. Udalak emaitza horiek nahi badu kontuan hartuko ditu eta nahi ez badu ez, ez baitu inolako beharkizunik. Derrigortzeko, araudia sortu beharko luke Diputazioak.

Erdaldunei ez al diegu hemen bizitzen utziko?

Delikatua da gaia. Aurreko legealdian Zigor Etxeburua Donostiako Kontseiluan ari zen lanean eta aipatu dugun Zubietako egitasmo erraldoia zegoen mahai gainean. Euskararen Aholku Batzordean Zubietarako prebentzio moldeak aztertzea proposatu eta giroa berotu zen: “Zer ari zara esaten, erdaldunek ezingo dutela joan bizitzera Zubietara?”. Etxeburua- ren ustez gaia arriskutsua da: “Dagoena zaintzea planteatzen duzu eta badirudi besteak baztertu nahi dituzula. Jendeak gaiaren alde iluna harrapatzen du lehendabizi. Gai honek izan dezakeen debate politikoa handia izan daiteke. Arrisku hori dauka”. Diputazioak ez du nahi taberna zuloko eztabaidarik gaiaren

HIZKUNTZA ETA LURRALDE ANTOLAKETA

Zoriak euskal komunitateari eskua bota badiezaioke ere, Bengoetxeak argi du lurralde antolamenduko aldaketek onerako baino okerrerako eragina izan

dutela orokorrean, arnasmuneak indartu baino uzkuritu egin ditu.

Asteasu	2006	2001
Biztanleria	1.438	1.290
Euskaldunak	%75,59	%81,24
Ama hizkuntza euskara	%71,42	%77,83
Etxean egiten den hizkuntza euskara	%54,31	%70,70

Alegia	2006	2001
Biztanleria	1.664	1.583
Euskaldunak	%77,88	%82,75
Ama hizkuntza euskara	%70,13	%75,17
Etxean egiten den hizkuntza euskara	%52,94	%71,13

Berastegi	2006	2001
Biztanleria	981	973
Euskaldunak	%85,42	%90,75
Ama hizkuntza euskara	%86,14	%91,68
Etxean egiten den hizkuntza euskara	%65,34	%87,05

Amezketeta	2006	2001
Biztanleria	942	980
Euskaldunak	%90,02	%93,37
Ama hizkuntza euskara	%89,60	%92,55
Etxean egiten den hizkuntza euskara	%71,95	%90,20

Iturria: Arnasmuneak. Ezaugarriak. Zenbait arnasmuneren egoeraren behaketa.

inguruan, marko akademikoan landu nahi du. Maiatzaren 12an, UEU eta Asmoz Fundazioaren eskutik, online ikastaroa eskainiko dute hizkuntza eta lurralde antolaketaz.

Arnasmuneak helburu

Edozein motatako herri eta hirietan izan dezake eragin linguistikoa proiektu urbanistiko batek, gunea oso euskalduna izan ala ez, eta gainera ez dago zertan pentsatu eragin horrek derrigorrez euskal komunitatea ahulduko duenik. Aurkakoa gerta liteke. Alabaina, Gipuzkoako Foru Aldundiak, UEMak eta Kontseiluak lehentasuntzat hartu dituzte eus-

kararen egoera ona duten herriak. Helburua argia da: ondo dagoena zaindu, ez dadila atzerapausorik eman eta urrats berriak ematerakoan prebentiboki aritu.

Miren Seguro UEMako kidea da eta Etxeburuaren sentsazioa elkarbanatzen du: “Adibide praktikoak begien aurrean ikusi ditugu, baina ez dugu asmatu horiei aurre egiten, behar besteko tresnarik ez dagoelako, eta seguru asko hizkuntza politika oso hizkuntzaren eremura lotuta planteatu izan delako, ez horrenbeste lurralde antolaketak izan zezakeen eraginari lotuta”. 22 urteko jardunean, UEMak hirugarren helburua, alegia,



Xapoa

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com



Unai Fernandez de Betoño


Gaur8, 2014-01-18

Homo vasconicusen habitata

HIRIGILEAK dira harreman hori hain argi ikusten ez dutenak. Arraroa, kultura-ondareaz eta tokiko identitateaz azken boladan hainbeste hitz egiten duen gremio baterako. Antza, hirigile gehienentzat eraikinek eta naturak soilik osatzen dute ondarea. Hirigintza-planak gelditu edo eraldatu izan dira Igeldoko igeltxoagatik (Donostiako Ibaetako industrialdea), europar bisoiagatik (Ondarroako Aieriko auzoa) edo paduretako ornogabeengatik (Plentziako eta Barrikako Txipioko urbanizazioa), baina Homo vasconicus gaixoaren habitata goitik behera desnaturalizatzeak ez du ia inor kezkatzen. Baina Homo (eta Mulier) vasconicus espezie setatsua, nomadak ez diren zerupeko izaki guztien moduan, lurralde jakin batean bizi da, espazio fisiko zehatz batean: Euskal Herria deitzen duten horren iparraldean, hots, ipar-isurialdean. Eta, bereziki, euskararen arnaguneak diren herri txiki eta ertainetan, non euskaldunen ehunekoa %70ekoa baino handiagoa den, eta, beraz, euskara hizkuntza nagusitzat jo daitekeen.

lurralde euskaldunean garapen sozioekonomikoa eta soziokulturala bultzatzea apenas landu duen. Orain heldu diote gaiari eta hari horri tiraka bi arrisku ikusten ditu UEMAk. Herri txikietan behar den bezalako garapenik ez bada, jendez hustuko dira. Adibide baten bidez esanda, autobus zerbitzua izateko 1.000 biztanle behar badira 950 dituen herria etxeak egiteko prest egongo da herritar berriak erakartzeko. Bigarren arriskua horixe da: hizkuntza kontuan hartu gabeko garapenak arnaguneak ahul ditzake.

UEMAren bidez, arnaguneetako biztanleekin tailerrak egiten ari dira. Arrakasta izan dute ondoko herrietan: Gipuzkoan Getaria, Orio, Zarautz, Bergara, Azpeitia; Nafarroan Araitx, Baztan, Goizueta; Bizkaian Markina-Xemein eta Lekeitio. Ekainera bitarte beste herri hauetan arituko dira: Deba eta Tolosa Gipuzkoan, Bortziriak eta Etxarri-Aranatz Nafarroan, Otxandio Bizkaian eta Aramaio Araban. Hitzun komunitate horiek garrantzi handia dute, eta beraz, herritar horien jarretan eragitea ezinbestekoa da. Helburua gune horiek horrela mantentzea da. Bestalde, Seguroiak dioenez, “esaten badugu arnaguneen hedapenetik sortuko dela Euskal Herri euskalduna, arnaguneetako herri-tarrak ez gara arnaguneetan bakarrik egoten, hizkuntzarekiko hartu dezakegun jarrera oso kutsakorra izan daiteke, asko eragin dezakegu”. ■

AQUARIUM



Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1
20003 Donostia (Gipuzkoa)

Tel: 943 44 00 99

aquariumss@aquariumss.com
www.aquariumss.com

